



LESAKA
gara



ARAUDIA SUSTRAILS OPEN ENDURO BTT (1ªJORNADA: BIZIBIDE, LESAKA)

Bizibide Enduro Lasterketaren araudi hau Sustrails Open Enduro BTT txapelketaren araudiaren osagarri bat da.

Proba dMillennial Rural Projects-en bitartez kronometratuko da.

● DATA, KOKAPENA ETA ORDUTEGIAK:

Proba Lesakan egingo da, irailaren 23an eta 24an.

LARUNBATA, IRAILAK 23:

- 10:00-13:00h: Dortsalak biltzea Plaza Zaharran.
- 08:00-16:00h: Igandeko ibilbidea ezagutzea (bakoitza bere kabuz)
- 16:30h: Sailkapen-probaren hasiera, dortsalaren arabera. Biker guztiak Plaza Zaharretik irtengo dira 17:30etan eta denak batera igoko dira irteerara.
- 20:00h: Plaza Zaharran pegatinak bilduko dira, lasterketako loturen ordutegiekin. Izena emandako pertsonen kopuruaren arabera, ordu hori aurreratatu daiteke.

IGANDEA, IRAILAK 24:

- Lasterketaren hasiera: 08:00h Partehartzaileek irteera-gunean (Plaza Zaharran) egon beharko dute irteera-ordua baino 10 minutu lehenago gutxienez.
- Lasterketaren amaiera: izena eman duten parte-hartzaileen kopuruaren arabera izango da. 200 pertsonen izena ematen badute, beranduenez lehenengoak 12:50etan amaituko du, eta azkenak 14: 30etan.
- Sari-banaketa 16:00etan Plaza Zaharran (ordua aurreratatu ahal izango da izena eman dutenen kopuruaren arabera).

● **ZERBITZUAK ETA MAPA:**

Herrira iristean, sarrerako biribilgunean, lehenengo irteera hartzea gomendatzen da, prestatutako aparkalekuetarako noranzkoan.



Biribilgunearen ondoren, aparkalekuak daude Mastegi futbol zelaiaren, kiroldegiaren, Harriondoa Kultur Etxearen eta ArcelorMittalen fabrikaren ondoan. Ekitaldiaren data hurbildu ahala eta parte-hartzaileen kopuru osoa jakin ahala, lasterketaren asteburuan behar bezala seinaleztatuta egongo diren aparkaleku gehiago irekitzea baloratuko da.

Zerbitzu hauek kiroldegian kokatuko dira: dutxak eta aldagelak, bizikleta garbitzeko gunea, bizikleta gordetzeko lekua eta bizikleta konpontzeko gunea (<https://www.google.es/maps/place/Piscinas+Municipales+de+Lesaka/@43.2491484,-1.7026662,19z/data=!3m1!4b1!4m6!3m5!1s0xd5104909b330531:0x6ae2e96db033a667!8m2!3d43.2491474!4d-1.7020225!16s%2Fg%2F11b7c58fsk?entry=ttu>).

Bizikleta elektrikoak kargatzeko gunea antzinako komentuan kokatuko da, Harriondoa Kultur Etxearen ondoan (<https://www.google.es/maps/place/Harriondoa+Kultur+Etxea/@43.2491484,-1.7026662,19z/data=!4m14!1m7!3m6!1s0xd5104909b330531:0x6ae2e96db033a667!2sPiscinas+Municipales+de+Lesaka!8m2!3d43.2491474!4d-1.7020225!16s%2Fg%2F11b7c58fsk!3m5!1s0xd51049a7f40b491:0x3ef622bbe412e89b!8m2!3d43.2491428!4d-1.7025575!16s%2Fg%2F11b76gn1g9?entry=ttu>).



Herrigunera iristean, Plaza Zaharra (udalerriko plaza nagusia udaletxearen ondoan) izango da jarduera gehienen epizentroa, baita lasterketaren irteera eta helmuga ere.





LESAKA
gara



● DESKRIBAPENA:

Enduro BTT probak bidaxka eta bideetatik lehiatzen diren lasterketak dira, non parte-hartzaile bakoitza kronometratutako denboraren aurka borrokatzen duen. Probak hainbat tarte kronometratu (TC) ditu, lotura-tarteen (TE) bidez lotuak, denbora itxiekien. Kronometratutako tartek individualak dira, eta normalean jaitsierak. Lotura-tartek pedalei eraginez egin behar dira. Zati kronometratuaren denboren eta penalizazioen baturan emaitzarik txikiena lortzen duenak lasterketa irabazten du.

Lotura-tartek asfaltatutako errepideak eta/edo pistak eduki ditzakete. Parte-hartzaileek nahitanahiez bete behar dituzte Bide Segurtasuneko Arauak, eta lehiaketatik kanpo utz ditzakete agintariek salatzen badituzte.

● XEDAPEN TEKNIKOAK:

Irteera-kontrol bat ezarriko da (0. puntua), bertan komisarioek babesak, jantziak eta bizikleta egiaztatuko dituzte. Kontrol horretatik pasatzen ez den partehartzailea probatik kanpo geratuko da.

Partehartzaile bat irteteko ordua baino beranduago iristen denean, gelditu eta kronometratzaileak irteera eman arte itxaron beharko du, orduaren arabera zenbatuko zaio denbora. Lehentasuna izango du bere denboran dagoen partehartzailea. Kronometroaz arduratzen den pertsonaren aginduak betetzen ez baditu, denbora gehiagoko zigorra edo frogatik kanporatzea ezarriko zaio, gertaeren larritasunaren arabera.

Dortsala, txipa edo bizikleta-plaka galtzeak korrikalaria ez sailkatzea ekar dezake. Tarte berezi baten bukaerara, tarte horren irteera-kontroletik pasatu gabe, ailegatzten diren partehartzaileak probaren deskalifikazioarekin zigortuko dira.

Ezarrirako lotura-denborak ibilbidearekin eta haren ezaugarriekin batera argitaratuko dira.

Partehartzaile batek sailkapena lortzeko aukera izan dezan, probaren ibilbide osoa egin beharko du, antolakuntzak diseinatutako ibilbidearen trazaduratik.



LESAKA
gara



www.visitnavarra.es

Erabat debekatuta dago kanpoko laguntza jasotzea zati kronometratu baten barruan matxuragatik. Partehartzaileak bere kabuz konpondu beharko du, edo tartearen amaierara iritsi eta beharrezko laguntza mekanikoa jaso.

Partehartzailea beste partehartzaile azkarrago batek aurreratzen duenean, maniobra erraztu beharko du, eta ez du aurkariaren bidea oztopatuko. Aurrera doan partehartzaileak, maniobra hau errespetuz eskatu beharko du.

Parte-hartzaile orok istripu larri bat izan duen beste partehartzaile bati lagundu behar dio, eta lehen kontrolari deituko dio, medikuek artatu dezaten.

Partehartzaile batek "Tarte Berezi" bat utz dezake, geratzen diren tarteetan lehiatzeko aukera alde batera utzi gabe.

Partehartzaile bakoitzaren ardura izango da proban parte hartzea. Berak bere kabuz epaituko du lasterketan jarraitu behar duen edo jarraitu ahal duen, osasun-zerbitzuetako langileek edo karrerako zuzendariak erabakitzen badu kanpoan uztea osasunarekin lotutako segurtasun-arrazoiengatik.

Parte-hartzaileei gomendatzen zaie likidoa eta elikagai energetikoren bat eramatea. Era berean, oso gomendagarria da parte-hartzaile bakoitzak gutxieneko erremintak eta ordezkoko piezak eramatea balizko matxurak konpontzeko. Botikin txiki bat eramatea ere gomendatzen da.

● BIZIKLETAK

Lasterketarako MTB bizikletak bakarrik erabili ahal izango dira. Antolakuntzak eta komisarioek eskubidea izango dute segurtasun-araudia edota gutxieneko segurtasun-baldintzak betetzen ez dituen bizikleta oro baztertzeko.

● E-BIKE

E-bike kategoriako parte-hartzaileek parte hartzeko arau hauek bete beharko dituzte, FCCren BTT enduroaren araudian eta pedalei eragiteko laguntza homologatua duten bizikleta elektrikoetan



LESAKA
gara



www.visitnavarra.es

oinarrituta: Lagundutako gehieneko abiadura: 25 km/h. Txirrindulariak motorra pedalierraren mugimendurik gabe funtzionaraziko duten mekanismoak instalatzea debekatuta dago. Ibiltzeko laguntza-botoia baimenduta dago, motorrari gehienez ere 6 km/h-ko abiadura eragiten diona. Honi esker, ibilbidea bizikletaren beraren laguntza mekanikoarekin egin ahal izango du, e-biken kategoria honetan baimenduta dagoena.

Baterien erabilera: 2 bateria erabiltzea baimenduta dago; bigarren bateria erabiltzeak 10 minutuko penalizazioa izango du probaren azken denborarako. Bigarren bateria antolakuntzak markatuko duen puntu batetik aurrera erabili ahal izango da, eta bera arduratuko da puntu horretara eramateaz.

Egiaztapen teknikoak eta kontrolak: Bizikletek egiaztapen tekniko batzuk igaro beharko dituzte irteera baino lehen, eta bertan baldintza guztiak betetzen dituztela kontrolatuko da. Zirkuituaren erdian ezusteko kontrolak egin ahal izango dira, araudi hau betetzen ez bada probaren deskalifikazioa ekarriko du. Kategoria hau lehenengoa izango da.

● **BABESAK ETA SEGURTASUN NEURRIAK:**

Derrigorrezkoa izango da kasko integrala, kronometratutako ataletan behar bezala lotua; eskularru luzeak eta belaunburuak.

Babesteko peto edo motxila, betaurrekoak eta ukondoak oso gomendagarriak dira.

Ez da erreklamaziorik onartuko txirrindulariek, gomendatutako babesak erabili ez dituztelako, jasan ditzaketen lesioengatik.

● **KATEGORIAK**

Sustrails Open Enduro BTT probaren batean parte hartu ahal izateko, indarrean dagoen RFECren federazio-lizentzia eduki beharko da.

Federatuta ez badago, eguneko lizentzia bat izapidetu beharko da, eta jaiotza-urtearen arabera dagokien kategorian sartuko dira.



LESAKA
gara



Sustrails Open Enduro BTT probetarako kategoria puntuagarriak honako hauek dira:

- GIZONEZKOAK SUB 18: 2006 - 2008 urteetan jaiok
- GIZONEZKOAK SUB 23: 2005 - 2001 urteetan jaiok
- GIZONEZKOAK ELITE: 2000 - 1994 urteetan jaiok
- GIZONEZKOAK MASTER 30: 1993 - 1984 urteetan jaiok
- GIZONEZKOAK MASTER 40 eta 50: 1983 urtetik aurrera jaiok
- EMAKUMEZKOAK SCRATCH: 2008 tik aurrera jaiotakoak eta bizikleta EZ elektrikoarekin parte hartuko dutenak
- GIZONEZKOAK EBIKE: 2008 tik aurrera jaiotakoak eta bizikleta elektrikoarekin parte hartuko dutenak
- EMAKUMEZKOAK EBIKE: 2008 tik aurrera jaiotakoak eta bizikleta EZ elektrikoarekin parte hartuko dutenak.

Gainera **gizonezko guztien arteko SCRATCH** sailkapen bat egingo da (Ebike-ak kanpo).

● DORTSALAK ETA TRANSPONDER-AK:

Dortsalen bilketa irailaren 23an 10:00etatik 13:00etara.

Transponderra jasotzean, 20 €-ko gordailua utziko da, itzultzean berreskuratuko dena.

● IZEN EMATEAREN DIRUA ITZULTZEKO POLITIKA:

Inskripzioa epea bukatu baino 10 egun lehenago bertan behera utzi nahi bada diruaren %90 itzuliko da.

INSKRIPZIOA EPEA BUKATZEKO 10 EGUN BAINO GUTXIAGO FALTA DIRENEAN BERTAN BEHERA UTZI NAHI BADA EZ DA DIRURIK ITZULIKO.

● IRTEERA ETA ORDUTEGI-KONTROLAK:

Probaren irteerab, bai eta gainerako TC-tan ere, banan-banan egingo da irteera, 20-60 segundoko tartekin, antolatzaile bakoitzaren irizpidearen arabera, eta izane eman duten txirrindulari kopuruaren arabera. Lehiaketaren irteera eta helmuga behar bezala markatuta egongo dira.

Parte-hartzaile bakoitzak igarotze ordutegi batzuk bete behar ditu kontrol bakoitzean, eta probaren sektore guztiak zeharkatzeko gehienezko denbora bat izango du.

Larunbatean sailkapen berezia egingo da igandeko irteera ordena zehazteko.



LESAKA
gara



Igandean, loturadun lasterketa eta gutxienez 3 lotura berezi kronometratuak

Sailkapen berezia egin ez duen txirrindulariak igandean parte hartu ahal izango du, azken sailkatuaren denbora berarekin.

Igandeko irteera-ordua eta kronometratutako tartena, parte-hartzaile bakoitzaren "Ordu-tegi Kontrolako Txartelean" inprimatuta egongo dira, eta txartel hori bakarra, pertsonala eta besterenezina izango da. Txartel honetan, parte-hartzaileak probaren ordutegi-kontrol guztietatik igarotzeko bete behar dituen ordutegi guztiak agertzen dira.

● SAILKAPENAK:

Partehartzaile bakoitzaren lasterketa-sailkapena kronometratutako tartetan egindako denbora guztien baturatik kalkulatu da, bai larunbateko bai igandeko tarte berezietatik, bai zigor posibleen baturatik.

dMillennial Rural Projects, Sustrails Open Enduro BTTren enpresa kronometratzaileak, alde aurretik ezarritako puntuazio baten bidez sailkapen orokor bat egingo du, egindako proba bakoitzaren ondoren eta kategoria bakoitzerako.

Proba bakoitzean emandako puntuazioak puntuazio-taulan jasotakoak izango dira.

Kategorien arabera sailkapena puntuazio-taularen arabera ezarriko da. Proba 90.postutik gora amaitzen duen parte-hartzaile orok puntu 1 lortuko du.

Puntuazioen taula:

<https://docs.google.com/spreadsheets/d/1tRR2Dlx-Wy1rd2fSMII8Z631zkCqfCglvxIyCgZn8xw/edit?usp=sharing>

● SARIAK ETA TROFEOAK:

Proba bakoitzean, antolatzaile bakoitza arduratuko da bere sariak emateaz, eta urriaren 21-22an Basaburuan antolatuko den azken proban, Sustrails Open Enduro BTT sariak banatuko zaizkie kategoria bakoitzeko eta orokorreko openaren irabazleei.

Bizibide-Lesakan irailaren 23an eta 24an antolatuko den lehen jardunaldi honetan, ezarritako kategoria bakoitzeko lehen hiru sailkatuek trofeo bat eta sari bat jasoko dute.

Sariez gain, korrikalari bakoitzak, dortsalarekin batera, poltsa bat jasoko du, probaren babesleen eta antolakuntzaren produktuekin.



LESAKA
gara



● ERREKLAMAZIOAK:

Probaren garapenari edo korrikalarien portaerari buruzko erreklamazioak Komisarioen Elkargoari aurkeztu beharko zaizkio, gehienez ere azken korrikalaria iritsi eta 15 minutura.

Sailkapenei buruzko erreklamazioak informazio-paneletan jarri eta gehienez 30 minutura aurkeztu beharko dira. Erreklamazio horiek komisarioek eta batzorde antolatzaileko lehendakariak aztertuko dituzte.

● ZIGORRAK:

- Baimendutako eremuetatik kanpo, kanpotik laguntza jasotzea → Lasterketatik kanporatzea
- Markatutako ibilbidea ez errespetatzea, atek saltatzea, etab. → Arau-haustearen arabera, 30 segunduko zigorratik, lasterketatik kanporatzerara arte.
- Ibilbidearen trazadura ez errespetatzea → Lasterketatik kanporatzea
- Erremontek edo kanpoko laguntza erabiltzea lasterketan zehar → Lasterketatik kanporatzea
- Entrenamendu-egunean erremonte mekanikoak erabiltzea → Lasterketan irteera hartzeko debekua.
- Irteeran nahitaezko ekipamendurik gabe aurkeztea → Lasterketan irteera hartzeko debekua.
- Lasterketan zehar kaskoa ez erabiltzea → Lasterketatik kanporatzea

● IRAUNKORTASUNA, IRISGARRITASUNA ETA INKLUSIBOTASUNA:

Ekitaldi hau Nafarroako Gobernuak antolatutako "ekitaldi jasangarri, irisgarri eta inklusiboen" programari atxikita dago. Hori dela eta, datozen asteetan iragarriko diren hainbat neurri hartuko dira, ekitaldi hau irisgarria, inklusiboa eta jasangarria izan dadin ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren aldetik. Era berean, parte-hartzaileei eta laguntzaileei zeregin horretan laguntzeko eskatzen zaie.